

SERANTES KULTUR ARETOKO ERAKUNDE AUTONOMOA ANTOLATZEKO BARNE ETA JARDUNBIDE ARAUDIA

Serantes Kultur Areto Udal Erakunde Autonomoan indarrean dauden estatutuen azken xedapenak erakunde antolatzeke barne eta jardunbide araudia izateko beharra zehazten du. Dagozkion zerbitzuak erakundeak nola eman behar dituen arautzea du helburu araudiak.

Serantes Kultur Aretoak Santurtziko kultura-dinamizazio esparruan balio anitzeko jarduna du. Horretarako, ezagupen orokorreko prozedura tasatuen arabera agindutako lanari ezarri beharreko giza baliabide eta baliabide materialak ditu.

Araudi honen helburua beraz, SKAk zerbitzu-emaile gisa duen jardunbidea ezartzea eta arautzea da. Araudian SKAko erabiltzaileek dituzten betebeharrak eta eskubideak ere adierazi behar dira.

Era berean, Erakunde Autonomoko langileen lana antolatzen duten arauak zehazten dira araudi honetan.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Santurtziko Erakunde Autonomoa den Serantes Kultur Aretoa (hemendik aurrera SKA) Santurtziko Udalak sortutako herri-eskubideko erakunde da. SKAk Santurtziko ondare kulturala berreskuratzeko eta kultura-dinamizazio eta zabalkunde garatzeko ekitaldi, programa, ikastaro, lehiaketak, ikerketak, etab. antolatzea du helburu. Era berean, udalaren Zaindari-jaiak antolatzea eta herrian artegintza-ekimenei laguntza eta sustapena ematea dira bere betebeharrak batzuk.

2. artikulua

SKAk bere kudeaketarako hurrengo ekipamendu hauek ditu atxikita:

- Serantes Kultur Aretoa, Gabriel Aresti enparantzan; batez ere, zinema-erakusketetarako eta zuzeneko ikuskizunen emanaldietarako diseinatutako antzokia.
- Kresala Aretoa, Barandiaran 12; zenbait bilkura eta formatu txikiko ekitaldietarako.
- Arte Plastikoetako Tailerra, Bañaleserako igoeran; Arte Plastikoen arloan, formazio eta olgeta jarduerak gauzatzeko zentroa.
- Dorretxea, Sabino Arana kalean; Erakusketa-gela, tokiko interpretazio zentroa eta zenbait bilkura eta formatu txikiko ekitaldietarako gelak izango dituen tokia.
- SKAk Lauaxeta kalean dagoen udal lokal bat eta Eusko Jaurlaritzari alokatutako lonja batzuk ere kudeatzen ditu. Udalak lokal hauek herriko elkarteek antolatutako ekitaldiak egiteko lagatzen dituzte.

Era berean, SKAk udalarena den “Karmengo Ama Birjina” ontzia mantendu eta kudeatzen du.

Beharrezkoa balitz, aipatutako ekipamenduak handi litezke udalarenak diren beste lokal batzuekin, Santurtziko Udalak SKAri agindu dizkion helburuak lortze aldera.

3. artikulua

Bere helburuak lortzeko, SKAk hainbat zerbitzu emateaz gain, ekitaldiak antolatzen ditu, bai zuzenean, bai Santurtziko pertsona fisiko eta juridikoekiko kolaborazioan, araudi honetan eta ezartzeko legedi espezifikoan zehaztutakoarekin bat etorrira, kasuan-kasuan, noizean behin edo etengabeko akordioen arabera.

4. artikulua

SKAren kudeaketa eraginkortasun printzipioak aintzat hartuta egiten da, eta eskaintzen dituen zerbitzuak doan edo tasa edota prezio publikoen arabera izango dira.

Hala balegokio, tasak eta araututako prezio publikoak SKAko Artezkaritza Kontseiluak urtero onartuko ditu, eta Udal Batzak Osoko Bilkuran behin berretsita, udal zerga fiskaletan sartuko dira.

5.artikulua

Araudi honen 2. artikuluan aipatutako ekipamenduak eta SKAren zerbitzuak antolatzen dituen ekitaldiak santurtziar zein santurtziarrak ez diren pertsona fisiko eta juridikoek erabili ahal izango dituzte, araudi honetan eta bertan jasotzen ez diren kasuak zehaztuko dituen arau espezifikoetan ezarritakoaren arabera. SKAk du araudi hau argitu, handitu edo alda lezaketen dagozkien ebazpenak hartzeko eskumenak.

6. artikulua

Espezifikoki, honako araudi hau 2002ko otsailaren 11n argitaratutako Serantes Kultur Aretoaren eta Kresala Aretoaren aretoak erabiltzeko baimen araudiak eta 2003ko otsailaren 25ean argitaratutako Serantes Kultur Aretoaren diru-laguntzak emateko araubideak osatzen dute, eta baita aipatutako araudiek izan ditzaketan aldaketek ere.

II. KAPITULUA

EKIPAMENDU, EKITALDI ETA ZERBITZUEN ERABILTZAILEAK

I. ATALA ERABILTZAILE MOTAK

7. artikulua

SKAko erabiltzaileak dira ekipamenduak baliatu, ekitaldietan parte hartu edo SKAk ematen dituen zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiak.

8. artikulua publikoa.

SKAko publikoa da SKAk programatutako ekitaldi bat leku eta denbora-tarte jakin batean ikusteko asmoz, batu egiten den pertsona fisikoen taldea.

8. artikulua Ikus-entzuleak

SKAko ikus-entzuleak dira edukiera mugatua duen areto itxi batean gauzatzen den ekitaldi batean parte-hartzen duen SKAko publikoaren zati bat.

Aretoan sartzeko beharrezkoa da SKAk emandako sarrera izatea, berau ordaindua ala doan izanik ere.

9. artikulua SKAko bazkideak

SKAko bazkidea programatutako ekitaldi multzo bat ikusteko aukera ematen dien titulu baten jabe diren ikus-entzuleen taldea da. Titulua izateak abantaila ekonomiko eta komunikatiboak dakartza berarekin.

10. artikulua SKAren kolaboratzaileak

SKAren kolaboratzaileak Erakunde Autonomoaren programa eta zerbitzuetan parte hartuz beronen helburuak lortzeko urgazten duten pertsona fisiko edo juridikoak dira.

Kolaboratzaileek kasuan-kasuan egiten diren itunen arabera jarduera burutzen dute.

11. artikulua

SKAren kolaboratzaileak boluntarioak dira, eta egiten duten lana dirua irabazi asmorik gabekoa da, kolaborazioaren ekitaldiaren xedea betetzeko Erakunde Autonomoak diru edo material ekarpena gorabehera.

12. artikulua Lagapen-hartzailea

Lagapen-hartzaileak SKAko gune eta ekipamenduak berezko ekimenez eta lagapen-erregimenpean erabiltzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak dira, ezartzeko honako araudi honetan zehazten diren mugen barruan.

Lagapenak doakoak izan daitezke, lagatako gune eta ondasunekin lotutako kostu jakin batzuk lagapen-hartzaileak bere gain hartu behararen kalte gabe.

13. artikulua Parte-hartzaileak

SKAko ekitaldien parte-hartzaileak bakarka zein taldeka, nor bere izenean Erakunde Autonomoak antolatutako ekitaldiren batean borondatez parte hartzen duten pertsonak dira. Parte hartzea ekitaldi bakoitzaren antolakuntzak dakartzan arau espezifikoaren arabera izango da.

II. ATALA ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHAR OROKORRAK

14. artikulua

SKAko zerbitzu, ekipamendu eta ekitaldien erabiltzaile guztiek horiek erabiltzeko eskubidea izango dute, eta ezin izango da inor sexu, etnia, erlijio, ideologia edo bestelako egoera pertsonal edo soziala dela-eta baztertu, erabilpenak honako araudi honetan zehazten diren arauak ezartzen dituen eta ekitaldi jakin baten antolakuntzaren mugak baino ez dituela.

15. artikulua

SKAko erabiltzaileek hurrengo eskubide hauek dituzte:

- 1.- Begirunezko eta adeitasunezko tratua jasotzeko, SKAko langileen zein gainontzeko erabiltzaileen aldetik
- 2.- Erakunde Autonomoak ematen dituen zerbitzu eta ekitaldiei buruzko informazioa jasotzeko
- 3.- Emandako zerbitzuen prezioaren berri izateko, hauek tasa edo prezio publikoan daudenean
- 4.- Egoki deritzen erreklamazio edo iradokizunak egite aldera, SKAko edozein langileren identifikazioa eskatzeko.
- 5.- Erakunde Autonomoari emandako zerbitzuen inguruko iradokizunak eta erreklamazioak egiteko, eta 10 lan-eguneko epean erantzuna jasotzeko.
- 6.- Erakunde Autonomoarekin Euskal Erkidegoko edozein hizkuntz ofizialetan harremanetan jartzeko
- 7.- Honako araubide honen ale bat eskatu eta jasotzeko
- 8.- Indarrean dagoen legedian jasota dauden bestelako eskubideak

16. artikulua

SKAko erabiltzaileek hurrengo hauek bete behar dituzte:

- 1.- Erakunde Autonomoaren instalazioak eta ematen zaizkien zerbitzuak Araudi honek agintzen duen moduan erabili behar dituzte.
- 2.- SKAko langileek bertako ekipamenduak erabiltzeko arauak eta ematen diren ekitaldiez adierazitakoa bete
- 3.- Erakunde Autonomoaren langile eta gainontzeko erabiltzaileak begirunez eta adeitasunez tratatu.
- 4.- Hala balegokio, SKAk eskaintzen duen zerbitzu edo ekitaldiari ezarritako tasa edo prezio publikoa alde aurretik ordaindu
- 5.- Erakunde Autonomoari jakinarazi instalakuntzaren funtzionamenduan ezohiko zerbait antzemango balute, zerbitzuak ematean akatsik balego edo ekitaldi bakoitzari dagokion araudia beteko ez balitz.

6.- Indarrean dagoen legedian eta araudi honetan jasota dauden bestelako betebeharrak.

III.KAPITULUA

EKIPAMENDUAK ERABILTZEKO ARAUAK

I. ATALA: SERANTES KULTUR ARETOAREN ESPAZIO PUBLIKOEN ERABILPENA

17. artikulua

Ikus-entzuleek zein lagapen-hartzaile erabiltzaileek izango dute Serantes Kultur Areto, Kresala eta Dorretxeko aretoak erabiltzeko aukera.

18. artikulua

Espazio hauetako areto bakoitzaren edukierak mugatuko du bertan gauzatzen diren ekitaldien ikus-entzuleen kopurua, ekitaldiok SKAk berak edo hura erabiltzeko baimena jaso duen erabiltzaile batek antolatu dituela.

19. artikulua

Normalean, ikus-entzuleak programatutako ekitaldiaren hasiera ordua baino ordu erdi lehenago hasiko dira sartzen

20. artikulua

Ikus-entzuleek ekitaldiari dagokion sarrera erakutsi beharko diote lan horretan diharduen SKAko langileari aretoetan sartzeko. Ekitaldiak lagapen-hartzailearen batek antolatzen baditu, honi lagatako aretoan erabil daitezkeen eserleku beste txartel emango zaizkio.

21. artikulua

Serantes Kultur Aretoko 1, 2 eta 3 aretoen doako lagapena Santurtziko Elkartearen Erregistro Orokorrean, Udal-arlo eta Erakunde Autonomoetan eta bertoko itunpeko zein herri ikastetxeetan kontsignatuta dauden erakundeei baino ezin izango zaie egin. Era berean, salbuespen gisa doan laga ahal izango zaie udalez gaindiko herri-erakundeei, egiteko den ekitaldiaren izaera Erakunde Autonomoaren xedeekin bat badator eta Santurtziko herritarren probetxurako doan egiten bada.

Honako atal honetako espazio guztietan, lagapena doakoa denean, lagapen-hartzaileak lagatako aretoa eta bertako ekipamendua ordaindu gabe erabili ahal izango du. Hala ere, ekitaldia gauzatzeko bitarteko kopurua handitu beharko balu (giza zein bitarteko teknikoak), lagapen-hartzaileak berak hartu beharko luke gastu hori bere gain.

22. artikulua

Lagapen erregimenean den inongo erabiltzailerik ez du izango Serantes Kultur Areto, Kresala eta Dorretxeko aretoen bitarteko teknikoak erabiltzeko baimena, SKAk berauek mantendu eta manipulatzeko kontratatu duen enpresako teknikari baten ikuskaritzapean ez bada. Horri dagozkion gastuak lagapen-hartzaileak hartuko ditu bere gain, hurrengo kasu hauetan izan ezik:

1.- Kresala edo Dorretxeko doako lagapena, betiere Elkartearen udal-erregistroan kontsignatutako elkarte baten aldekoa bada.

2.- Atal honetan adierazten den edozein espazioren alokairu-erregimenean eginiko lagapenak

23. artikulua

SKAko espazio publikoen lagapena hurrengo hauek mugatuko dute, kasuan-kasuan; batetik, Erakunde Autonomoaren Presidentearen ebazpenak (2002ko otsailaren 11n argitaratutako Erakunde Autonomoaren Aretoak Erabiltzeko Baimenen Araudiarekin bat datorrena); eta bestetik, Tasa eta Prezio Publikoen Udal Ordenantzak eta doako lagapenak dakartzan gastuei aurre egiteko erabil daitezkeen aurrekontuetako baliabideak, lagapenotan SKAk bestelako bitarteko teknikoak jarri behar dituenean.

24. artikulua

Lagapen-erregimenean eginiko ekitaldiak, hauetan sarrerak salgai jartzen badira, komertzializatu egin ahal izango dira lagapen-hartzaileak hala eskatuta, SKAk erabiltzen dituen salmenta bideen bitartez. Horrelakoetan, bildutako diru guztia lagapen-hartzaileari emango zaio, eta ez da Erakunde Autonomoaren diru-sarrera gisa kontabilizatuko.

25. artikulua

Lagapen-erregimenean eginiko ekitaldi bati esleri dakizkiokeen zerga guztiak lagapen-hartzaileak hartuko ditu bere gain, Jabego Intelektualaren Araudietakoak barne.

26. artikulua

Atal honetan adierazten diren espazioen lagapen-hartzaileek lagapena xede duen ekitaldiak dakartzan arriskuei aurre egiteko moduko erantzukizun zibileko aseguria eduki behar izango dute.

II. ATALA: HERRIKO ELKARTE-ERAKUNDEEI JARRAIAN LAGATUTAKO ESPAZIOEN ERABILPENA

27. artikulua

SKAk lokalak prekarioan laga ahal izango die Santurtziko elkarte-erakundeei ekitaldi soziokulturalak jarduera jarraian gauza ditzaten. Espazioaren erabilpena bakarrekoa edo partekatua izan daiteke.

28. artikulua

Horrelako lagapenen hartzaileak Elkartearen Udal Erregistroan izena emana duten eta gehienbat helburu kulturala duten elkarteak baino ezin izango dira izan.

29. artikulua

Lagapenak Erakunde Autonomoaren Presidentearen ebazpenaren bidez egingo dira, eta 4 urteko iraupena izango dute gehien jota, elkarren segidako aldietan luzatzeko aukera egongo bada ere.

30. artikulua

Horrelako lagapenak doakoak izango dira, lagapena egiten duen erakundeari ekar liezazkiokeen gastuen kalte gabe, berau baimendu duen ebazpenean ezarritakoaren arabera, hala balegokio

31. artikulua

Lagapenak interes duen elkarteak eskatuta egingo dira. Honek Erakunde Autonomoaren presidenteari egin beharko dio eskaria, eskatu den espazioan egin nahi den ekitaldiaren ezaugarriak eta hura gauzatzeko zer behar den zehazten dituen txostena duela.

32. artikulua

Espazio beraren lagapena erakunde batek baino gehiagok eskatuko balu, erabilgarri dagoen espazioari hoberen egokitzen zaion ekitaldia izateaz

gain, hurrengo lehentasun hurrenkera irizpide hauek hoberen betetzen dituzten erakundeen alde egingo litzateke lagapena:

- 1.- Serantes Kultur Aretoaren xedeekin bat etortzea
- 2.- Udalean ez den jarduera-eremu bat betetzea
- 3.- SKAren erakunde-lankidea izatea
- 4.- Ahalik eta gehienentzat onuragarria izatea

33. artikulua

Lagapena berau gauzatzeko baimentzen den epea amaitzen denean bukatuko da. Erakunde onuradunak lagapenari uko egiten badio, bertan behera geratuko da.

SKAko presidentek hala ebatzita, lagapena edonoiz baliogabetu ahal izango da, betiere arrazoitua hurrengo arrazoi hauek ematen dituela:

- 1.- Espazioa SKAren zerbitzu bat ezartzeko behar balitz
- 2.- Erakunde lagapen-hartzaileak espazioa desegoki erabiliko balu
- 3.- Erakunde Autonomoak espazioaren jabetza galduko balu

34. artikulua

Atal honetan zehazten diren lagapenetako bat lehenengoz egiten denean, baimenaren ebazpenarekin batera, erakunde lagapen-hartzaileak sinatu beharreko udal jabetza duten ondasun higikorren inbentario bat jasoko du.

Lagapen-epea amaitzen denean, inbentarioa berrikusiko da, eta erakunde lagapen-hartzailea izango da kasu bakoitzari dagozkion lege-terminoetan lagatako ondasunen egoeraren erantzulea.

35. artikulua

Lagatako espazioen mantentze-lan arruntak erakunde lagapen-hartzaileak hartuko ditu bere gain, baina egitura aldatzea dakarren edozein obra egin nahiko balu, SKAko arduradunei eskatu beharko lieke baimena.

36. artikulua

Lagapenaren ebazpenean beste xedapen bat azaldu ezean, erakunde lagapen-hartzaileak hartuko du bere gain lagatako espazioa garbitzeko lanaren ardura.

37. artikulua

Debekatuta dago lagatako espazio batean lagapena baimentzen duen ebazpenean adierazitakoa, lege-antolamendua, bere esparrua edozein dela, eta honako araudia hautsiko dituen edozein jarduera gauzatzea.

Aurreko puntuan ezarritakoaren aurkako erabilerak, lagapen-hartzaileak har litzakeen erantzukizun legalez gain, lagapenaren baliogabetzea ekar dezake.

38. artikulua

Atal honetan adierazten diren espazioen lagapen-hartzaileek lagapena xede duen ekitaldiak dakartzan arriskuei aurre egiteko moduko erantzukizun zibileko aseguruia eduki behar izango dute.

39. artikulua

SKAko langileek lagatako espazioetan edonoiz sartzeko aukera izango dute berauek ikuskatzeko.

III. ATALA: “KARMENGO AMA BIRJINA” ONTZIA ERABILTZEKO ARAUAK

40. artikulua

“Karmengo Ama Birjina” ontzia SKAk kudeatzen du, eta bera da ontziaren mantentze-lanen, zaintzaren eta erabilpenaren arduraduna, eragin guztietarako.

41. artikulua

Ontziaren kudeaketan lehentasuna dute Karmengo Amaren Itsas prozesioan erabiltzeko beharrezkoak diren jarduera guztiek eta gure herriko historia ezagutze aldera Santurtziko eskola-umeekin egiten diren itsasaldiek.

Ontzia dagokien agintarien esku jarriko da, larrialdi edo antzeko egoera batek hala eskatzen duenean.

Ontzia erabili beharreko gainontzeko jarduerak lehenago aipatu direnen osagarriak dira, eta berauek sortzen dituzten gastuen eta tripulazioaren lan kargaren arabera izango da erabiltzeko baimena

42. artikulua

Merkataritza-itsasketarako Zuzendaritza Orokorrek emandako baimenen arabera, "Karmengo Ama Birjina" ontziak Itsasadarreko eta Bilboko Portuko uretatik baino ezin izango du nabigatu. Era berean, beronen mantentze, konponketa eta berrikusketa lanak egiteko Bermeoko Ontziolara edo dagokion tokira eraman ahal izango da.

43. artikulua

Kasu guztietan, eskumena duen agintariak emandako oharrei jaramon egin beharko zaie, batez ere larrialdi eta salbamendu bideei dagozkienak.

Bilboko Itsas Kapitaintzak alde zuzenetik baimena eman ezean, ezin izango da arestian aipatu dugunaren inguruko edozein salbuespen aintzat hartu.

44. artikulua

"Karmengo Ama Birjina" ontziaren tripulazioa nabigazioan esperientzia eta ezagupenak dituzten boluntarioez osatuko da. Tripulazioko bi lagunek, gutxienez, ontzian patroia ibiltzeko moduko titulua izan beharko dute.

Era berean, itsaslari-laguntzaile gisa nabigatzeko laguntza eman ahal izango dute, esperientzia duten pertsonen, titulaziorik izan ez arren. Horretarako, SKAk bi zerrenda izango ditu: Lehenengoa ontziaren gobernua izateko gai diren pertsonen osatuko da, bigarrena, berriz, marinel gisa ibili nahi duten pertsonen.

45. artikulua

Ontziaren tripulazioa lau lagunek osatuko dute eskuarki, eta Erakunde Autonomoan horretarako propio dagoen erregistroan eskatu duten hurrenkeraren arabera osatuko da.

46. artikulua

Tripulazioak gutxienez urte beteko konpromisoa hartuko du ontziaren nabigazio lanetan jarduteko.

Ontzian ari diren tripulakideek ontziarekiko lan-konpromisoa eteteko asmoa adierazten ez duten bitartean, lanean jarraituko dute, eta ez da beraien ordezkari hartuko.

Ordezkapenak egiteko, zerrendaren eskabideen antzintasun-hurrenkera gordeko da.

47. artikulua

Ontziaren tripulazioak izendatu beharko du, behin betiko edo egoera bakoitzerako, tripulazioan izena eman eta titulazio nahikoa dutenen artean, nor arituko den ontziaren Patroi gisa. Horrela izan ezean, SKAk hartuko du Patroia izendatzeko ardura.

48. artikulua

Boluntario-aldi bakoitzean ontzian izena emanda dauden pertsonak berea zaintzeko eta txukun iraunarazteko beharrezkoak diren operazio eta maniobrak egingo dituzte portuan; hauen artean hurrengo lanak egin beharko dira:

- Ontzigain eta kroskoaren aldizkako berrikusketak
- Xukatzeko ponpen berrikusketa
- Motorren berrikusketa, noizean behin martxan jarri
- Nabigatzeko tresnen berrikusketa
- Amarraleku eta defentsen kontrola
- Garbiketa
- SKAri ontzian egin litezkeen hobekuntzen eta konpontze eta mantentze lanen inguruko aholkuak eman.
- Ontziko lanabes eta tresnen zaintza

49. artikulua

Ontzia bertan izena emanda dagoen tripulazioak gobernatuko du bidaldi guztietan, eta zehatz-mehatz Karmengo Amaren Prozesioa dela-eta itsasoratzen denean, Abrarako irteeraraino eskola-umeekin egiten diren txangoetan eta ontzia mantendu eta berrikusteko ontzioletara egiten diren itsasaldietan.

50. artikulua

Tripulazioak, aurreko puntuan adierazitakoa gorabehera, egoki baderitzo, ontzia mantentzea helburu duen bidaiaririk gabeko behar beste irtenaldi egiteko aukera izango du.

51. artikulua

Borondatezko tripulazioaren konpromisoak ez ditu adierazitako mugak gaindituko. Hala ere, eta horretarako eragozpenik ez badu, bestelako irtenaldiak egin ahal izango ditu udal agintariek eskatuta, hala balegokio. Era berean, ontziak, tripulazioak hala eskatuta, beste irtenaldi batzuk egin ahal

izango ditu bidaiari eta guzti, ontziaren helburuekin bat datozen jardueraren bat burutzeko. Horrelakoetan, aldez aurretik SKAn baimena eskatu behar izango da.

52. artikulua

“Karmengo Ama Birjina” ontziaren borondatezko tripulazioak ez du kolaborazio-lanaren truke soldatarik jasoko, oterdu eta bidaia-ordaina izan ezik, kontzeptu hauetan emango zaien ordainsaria berauek sortutako gastuen arabera izango da.

53. artikulua

Ontzia eskatzen zaion profesionaltasunez gobernatuko da, zerrendaren ezaugarriak ikusita. Patroiak hartuko ditu hartu beharreko erabakiak, itsasbideei, abiadurari, bidaiaren antolaerari, ziurtasun neurriei eta abarrei dagokienean. Indarrean dagoen legediak zehaztuko du patriaren agintea bidaldiak dirauen bitartean. Era berean, patriak ontzian ezinbestez izango ditu eskumena duen agintariak eska liezazkiokeen agiriak.

54. artikulua

Karmengo Prozesioari dagokionez eta gure herriko ohiturei jarraituz, “Prozesioaren Kapitaina” titulua daramanak, herriko itsas tradizio eta beteranotasunaren ordezkaria bera, Karmengo Amarekin batera ontziratzen denean, ontziaren ordezkatzeko agintea hartuko du. Bere agindupean dauden ontzilariei prozesioa noiz hasi, Salve otoitza egiteko ontzia noiz geldiarazi eta portura noiz itzuli behar duten adieraziko die. Hori guztia, ontziaren tripulazio osoak, batetik prozesioa ziurtasun arduradunak, Sustapen Ministerioa 62/2008 errege-dekretuaren aginduz eman litzakeen jarraibideei eta bestetik, SKAk ezartzen dituen antolakuntza neurriei dien mendekotasunaren kalte gabe.

55. artikulua

SKAk erantzukizun zibileko aseguruia izango du “Karmengo Ama Birjina” ontziko bidaiariek izan litzaketen istripuei aurre egiteko. Ontzian ezin izango dira 40 lagun baino gehiago egon, tripulazioa barne.

56. artikulua

Ontzian diren bidaiariak ontziaren tripulazioaren jarraibideei jaramon egin beharko diete, ziurtasunari dagozkion neurriei bereziki.

57. artikulua

Ontziratutako bidaiariak norberaren ekimenez edo tripulazioak hala adierazita, ontzian diren salbamendu-jakak jantzeko aukera izango dute. Adin txikiko bidaiariak, berriz, beti eraman beharko dute jantzita.

IV. KAPITULUA

ERAKUNDE AUTONOMOAREN EKITALDIETAKO PUBLIKOA, IKUS-ENTZULEAK, PARTE HARTZAILEAK ETA KOLABORATZAILEAK

I. ATALA: XEDAPEN ERKIDEAK

58. artikulua

Nahi duten guztiak izan daitezke SKAk antolatzen dituen ekitaldien publiko, ikus-entzule edo parte hartzaileak. Ekitaldia egiten den tokiaren edukierak, ekitaldia ikusteko eskatzen den gutxiengo adinak eta hala balegokio, sarrera izateak zehaztuko dituzte mugak

59. artikulua

SKAk antolatzen dituen ekitaldiak gizarte arlo jakin batentzat izan daitezke, ekitaldiaren beraren helburuen arabera. Horrelakoetan, sarrera gizarte arlo horretan diharduten pertsonetara muga liteke.

60. artikulua

SKAk antolatzen dituen ekitaldien berri emango du publikoki eta etengabe, herritarrek haiek ikusteko aukera izan dezaten, nahi badute.

Komunikazio publikoak, gutxienez, programatutako ekitaldiaren nolakotasuna, berau hasteko ordua, non egingo den eta hala balegokio, ikus-entzuleek hartu beharreko ziurtasun neurriak zein diren adieraziko ditu.

61. artikulua

Antolatzen diren ekitaldietan parte hartzen dutenen ziurtasuna etengabe zainduko da 393/2007 Errege-dekretuan, larrialdi-egoerak eragin ditzaketen jarduerak gauzaten dituzten zentro, establezimendu eta aretoetan auto-

babeserako oinarrizko araua onartzen duen dekretuan hain zuzen, Ikuskizun Publiko eta Dibertimenduzko Jardueretarako 4/1995 Legean eta kasu bakoitzean ezartzeko gainontzeko arauetan adierazten denarekin bat etorrira.

SKAk erantzukizun zibileko aseguruia du berak antolatutako ekitaldien ondorioz sor litezkeen kalteei aurre egiteko, betiere kaltea bera eta Erakunde Autonomoaren jokabidearen artean kausa harremana baldin bada.

II. ATALA: PUBLIKOA

62. artikulua

SKAko publikoa espazio jakin batean gertatzen den ekitaldi edo ikuskizun batera hartzaile gisa doan pertsona taldea da, berari dagokion tokian zehar ibili edo tokian bertan geratzen dela.

63. artikulua

Publikoa ezin izango da jardule eta teknikoek erabiltzen dituzten espazioetan egon, eta espazioak kasu bakoitzean egokien deritzen bitartekoen bidez mugatuko dira

64. artikulua

Baimendutako langileak izan ezik, ezin izango da inor baimenik gabe jai-ekitaldiak edo antzekoak egiteko kalean diren teknikoek gune eta eszenatokietan sartu.

65. artikulua

Publikoak alde zuzenetik zein tokian bertan jasotako ziurtasunari buruzko adierazpenei jaramon egin beharko die nahitaez.

66. artikulua

Publikoa heldu den orden berean sartuko da harentzat egokitutako guneetara, inolako lehentasunik egongo ez dela.

Sarbide mugatua duten guneak erabiltzeko aukera egongo da, ezgaitasunik duten pertsonak aretoan sar daitezela.

67. artikulua

Publikoaren sarrera, orokorrean, programatutako ekitaldia hasi baino ordu erdi lehenago egingo da.

68. artikulua

Arrazoi tekniko edo ezinbestekak bultzaturik programatutako ekitaldiren bat bertan behera geratuko balitz, aretoan dagoen publikoari berehala emango litzaioke honen berri, eta ez litzateke alde zurreratik eskuratutako eskubideak direla-eta inolako erreklamaziorik onartuko.

III. ATALA: IKUS-ENTZULEAK

69. artikulua

SKAren ekitaldietako ikus-entzulea toki itxi batean gertatzen den ekitaldi jakin bat ikusiko duen publikoaren zatia da, horretarako sarrera alde zurreratik hartu duela.

70. artikulua

Ikus-entzuleak ezin izango dira sarrerak sarbidea ematen dien aretoan baino sartu, eta bertan dagoen eserlekuan baino eseri. Gehienez ekitaldia gauzatzen ari den espazioaren edukierak uzten duen beste lagun sartuko dira.

71. artikulua

Ekitaldia ikusteko aukera ematen duen sarrera ordainpekoa denean, Tasa eta Prezio Publikoen Udal Ordenantzak zehaztuko du beronen prezioa.

72. artikulua

Sarrera hartzeko bideak eta tokiak zein diren programatutako ekitaldien komunikazio publikoan zehaztuko dira. Eta beratu lortzeko ez da inongo lehenetasun irizpiderik egongo, 59. artikuluan azaltzen dena ez bada.

Sarrera ordainpekoa bada, ez da inongo erreserbarik egingo.

73. artikulua

Ekitaldi batean sarbidea ematen duen sarrerak ekitaldi horretarako baino ez du balio izango. Ekitaldia gauzatzen den espazioan sartzean erakutsi beharko da, eta SKAko langileek edonoiz eskatuta.

74. artikulua

Edozein erreklamaziorik balego, eta honek sarreraren truke ordaindutako diruaren itzulketak, ordezkotzako neurri aringarri edo zuzenbidez ikus-entzulearen

aldeko bestelako neurririk ekarriko balu, sarreraren frogagiriak ikus-entzuleari dagokiona jasotzeko froga balioa izango luke

75. artikulua

Debekatuta dago programatutako ekitaldia oztopa dezaketen tresna elektronikoa edo sakelako telefonoa erabiltzea. Era berean, debekatuta dago, berariaz emandako baimena izan ezean, programatutako ikuskizun eta proiektzioen grabazioak egitea eta argazkiak ateratzea.

76. artikulua

Zuzeneko ikuskizunen hasierarako ikus-entzuleek eserlekuetan eserita egon beharko dute.

Emanaldi edo kontzertua hasi eta ekitaldia gauzatuko den aretoko ateak behin itxita, berandu heltzen diren ikus-entzuleei aretoan sartzea debeka dakieke, dagokien sarrera dutela ere.

Kasu honetan, ikus-entzuleak ez du sarreraren truke ordaindutako dirua eskuratzeko eskubiderik izango.

Neurri aringarri gisa, eta ahal den neurrian, SKAko langileak programatutako ekitaldira berandu heltzen den ikus-entzuleari aretoan sartzeko aukera eman liezaioke. Betiere, aretoko sarreratik hurbil dagoen eserleku batean esertzen bada, eta ez badie gainontzeko ikus-entzuleei enbarazurik egiten.

Aretoko Nagusiak edo Erakunde Autonomoaren Zuzendariak aginduko dute horrelako egoera bakoitzean zein neurri hartu behar den.

77. artikulua

3D eta zine arruntetako proiektzioetan baino ezin izango da freskagarririk eta litxarreriarik hartu.

Ezin izango da, inondik inora, kristalezko ontzirik erabili.

78. artikulua

Ikus-entzuleek ezin izango dute zaratarik atera, ozen hitz egin eta gainontzeko erabiltzaileei enbarazu egin diezaiekeen inolako jokaerarik izan. Era berean, eskuarki onartuta dauden gizalege eta garbitasun arauak gorde beharko dituzte.

79. artikulua

SKAko langileek edonoiz eskatu ahal izango diote edozein ikus-entzuleri honako atal honetan ezarritako arauak betetzea, eta ikus-entzuleak arau-hausteari eutsiko balio, aretotik behingoan irteteko agin liezaioke. Hori guztia, bere jokaera dela-eta, ikus-entzuleari lepora lekizkiokeen erantzukizun legalen kalte gabe.

80. artikulua

Ikus-entzuleek ekitaldiak ikusteko eskubidea izango dute, jaso duten sarreraren zehazten diren baldintzetan.

Arrazoi tekniko edo ezinbestekak bultzaturik, ezinezkoa balitz ekitaldia hitzartutako baldintzetan ikustea, aldeztatik erositako sarreraren truke ordaindutako diru kopurua itzuliko litzaioke ikus-entzuleari, edo hala balegokio, teknikoki ahal balitz eta aldeztatik adostuta, ordeztako sarrera edo neurri aringarriren bat emango litzaioke.

81. artikulua

SKAri dagozkion arduretatik kanpoko arrazoiz gertatutako hutsek ez diote ikus-entzuleari sarreraren truke ordaindutako dirua eskuratzeko eskubiderik emango, hala nola, ikus-entzuleari ezinezko egitea programatutako ekitaldira joatea, programatutako ekitaldia amaitu aurretik ikus-entzuleak aretotik alde egitea, programatutako ekitaldiaren edukiekin bat ez etortzea, ekitaldiaren kalitatea edo espektatibak, edo antzeko beste edozein dela.

82. artikulua

Iradokizun-orriak ikus-entzuleen esku egongo dira espazio guztietan. Bertan iradokizun edo iritzia ez ezik, ikus-entzulearen izen-abizenak, helbidea eta harremanetarako telefono zenbakia ere jasota egongo dira.

SKAk kexa eta iradokizunei 15 lan-eguneko epean emango die erantzuna, gehien jota.

83. artikulua

Ikus-entzuleen esku erreklamazio-orriak egongo dira arauzkoa den espazioetan, eta indarrean dauden lege-xedapenen arabera izapidetuko dira.

IV.ATALA: SERANTES KULTUR ARETOKO BAZKIDEAK

84. artikulua

SKAko bazkideak bazkide-titulu orokorra aldez aurretik dagokion tasa ordainduta jasotzen duten ikus-entzuleak dira.

85. artikulua

Edonor izan daiteke SKAko bazkidea, inongo mugarik gabe, berak hala eskatuta. Hala ere, SKAk bazkide kopurua muga lezake balizko bazkideei tituluari atxikita dauden zerbitzuak emateko zailtasun teknikoak baleude.

Bazkide kopurua mugatu beharko balitz, orain arteko bazkideek lehentasuna izango lukete hurrengo urteetan bazkide izateko.

86. artikulua

Bazkide txartelak urte oso baterako izango du balioa, eta tarte horretan baino ezin izango dira denboraldi horretarako diren zerbitzuak erabili.

87. artikulua

Bazkide txartela titulu bat da, honek dakartzan ezaugarri guztiekin. Pertsona bakar batek baino ezin du erabili eta besterenezina da.

88. artikulua

Bazkide-txartelak SKAk antolatzen dituen eszena ekitaldi guztiak ikusteko aukera emango du, ekitaldien prezio orokorraren gainean deskontuak eginez eta unean-unean indarrean dagoen Tasa eta Prezio Publikoen Udal Ordenantzan zehazten diren bestelako prestazioak erabiliz.

89. artikulua

Bazkide-txartela izateak ez dakar programatutako ekitaldiei dagozkien sarrerak lortzeko inolako lehentasunik. Izan ere, sarrerok edozein ikus-entzulek erabiliko lituzkeen bide eta tokietan jasoko ditu.

90. artikulua

Bazkideek ekitaldi jakin bati dagokion sarrera ez ezik, euren bazkide-txartela ere erakutsi beharko dute SKAn sartzeko.

V.ATALA: EKITALDIETAKO PARTE-HARTZAILEAK

91. artikulua

Parte-hartzaileak SKAk antolatutako ekitaldi batean horretarako propio kontratatu ez diren arren, ekitaldian modu aktiboan parte hartzen duten pertsonak dira.

92. artikulua

Parte-hartzaileek borondatez hartuko dute parte, eta ez diru truke, ekitaldi bakoitzerako ezartzen diren arauen arabera.

93. artikulua

SKAk herritarren parte hartzea bultzatuko du. Berauen parte hartzea bakarrik mugatuko da ekitaldiak ezartzen dituen muga praktikoek, ziurtasun arazoiek, eta antolamendu neurriek hala eskatzen dutenean.

94. artikulua

Herritarrek parte har dezaketen ekitaldiak direnean, publikoki jakinaraziko dira ekitaldiaren baldintzak eta non eta nola eman behar den bertan parte hartzeko izena.

95. artikulua

Parte hartze honetan sariren bat tartean bada, lehiakideen parte-hartzea lehiaketaren oinarriaren arabera antolatuko da. Hauek nork har dezakeen parte, lehiaketaren beraren arauak, epaimahaikideen zerrenda eta eman litezkeen sarien ezaugarriak arautuko dituzte.

96. artikulua

Parte hartzeak izena ematea eskatzen duenean, emandako datuak antolamendu eta komunikazio helburu baino ez dituen datu base batean sartu ahal izango dira, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako 15/1999 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

VI.ATALA: KOLABORATZAILEAK

97. artikulua

Norberaren ekimenez eta irabazteko asmorik gabe, SKAko xedeekin bat datozen ekitaldiak gauzatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak Erakunde

Autonomoaren kolaboratzailetzat har daitezke, kasu bakoitzean zehazten den terminoetan.

98. artikulua

Euren ekitaldiak burutzeko SKAko kolaboratzaileek diru laguntza jasotzeko aukera izango dute, diru-laguntzak banatzeko Serantes Kultur Aretoak duen araudiarekin bat etorriz.

Finkoa den eta diru-ekarpen errepikaria duen kolaborazioa Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda dauden Santurtziko elkarteekin beste inorekin ezin izango da egin.

Horrelakoetan, kolaborazioa legezko egingo da, batetik, adostutako kolaborazio-ezaugarriak dituen hitzarmen batez, eta bestetik, SKAko aurrekontuetan eman litekeen diru-laguntzaren izendun diru-esleipenaz

V. KAPITULUA ZEHAPEN ARAUBIDEA

99. artikulua

Araubide honetan ezarritako arauak ez betetzea arau-haustetzat hartuko da eta, hala, SKAko organo eskudunak zehatu ahal izango du.

100. artikulua

SKAko edo helburu jakin baterako Erakunde Autonomoaren agindupean ari diren enpresetako langileek, lanean dihardutenean, ohartarazi edota kanpora bidali ahal izango dituzte behar bezalako jokaera erakusten ez duten pertsonak. Nolanahi ere, aurrez, instalazioan dagoen SKAko arduradun nagusiari jakinarazi beharko diote.

101. artikulua

SKAko instalazioak eta euren zerbitzuak eta ekipamenduak erabiltzean, ustekabean gerta daitezkeen kalte pertsonalak ezin izango zaizkio inori leporatu eta ezin izango zaio horren ordaina eman. Salbuespen bakarrak langile arduradunaren erruz edo zabarkeriaz gertatutako kalteak eta instalazioen zein materialaren goera txarraren ondoriozko kalteak dira.

Ezin izango zaizkio Erakunde Autonomoari leporatu SKAko instalazioak, ekipamendua eta bertako ekitaldietan parte-hartzean gerta litezkeen

ustekabeko kalte pertsonalak, ezta horiei dagokien ordainketa eskatu ere, kalteak langileen zabarkeriaz edo erruz gertatu ezean, edo leporagarri diren arrazoiak tarteko.

102. artikulua

Hurrengo hutsegite hauek zigorgarri dira, larritasunaren arabera:

1.- Oso larriak:

- a) Erakunde Autonomoaren instalazioetan SKA edo hirugarrenengo baten ondasunak lapurtzea edo lapurretan parte hartzea, ondasunen diru-balioa 300 eurotik gorakoa bada.
- b) Arduradun politiko, funtzionario publiko eta bestelako langileei arauz kanpoko ekintza faltsuak leporatzea
- c) Erakunde Autonomoaren instalazioen ekipamendua suntsitzea
- d) Lagatako espazioetan legez kanpoko jarduerak egitea edo bertan baimenik gabe zerbaitetan aritzea
- e) Emandako diru-laguntzen iruzurrezko erabilpena
- f) SKAko espazioetan erabiltzaileen ziurtasuna arriskuan jar dezaketen jokaerak edo jarduerak gauzatzea.
- g) 12 hilabeteko epean 3 arau-hauste larri egitea

2.- Larriak:

- a) SKAko lokal, instalazio edo materialean kalteak eragitea, asmo txarrez edo zabarkeriaz, konponketen prezioa 90 eta 300 euroen artean badago.
- b) Irainzea edo pertsonen ohorea laidotzea
- c) Hirugarren bati arau-hausteak egin izana funtsik gabe leporatzea
- d) SKAko bazkide txartelaren iruzurrezko erabilpena
- e) 12 hilabeteko epean hiru arau-hauste arin egitea

3.- Arinak:

- a) SKAko beste erabiltzaileekin zein langileekin begirunez ez jokatzeko, eta bereziki gizalege eta garbitasun oinarritzko arauen aurkako jokaerak erakustea.
- b) Instalazioetara iruzurrez sartzea
- c) SKAko lokal, instalazio edota materialetan 90 euro baino gutxiagotan balioetsitako kalteak eragitea, zabarkeriaz edo asmo txarrez.

103. artikulua

SKAko langileen oharrei jaramon egin ez edo hausten dituztenek, Erakunde Autonomoko instalazioak erabiltzen edo ekitaldietan jarduten dutenek berorien helburuak eta araudi honetan eta ezartzeko bestelako araudietan ezarritakoa aintzat hartu gabe, egindako haustearen arabera eta kaltearen balioa kontuan hartuta, eta lepora liezazkiekeen erantzukizun legalak gorabehera, honako prozedura honi jarraituta jasoko dute zehapena:

1.- Arau-hauste oso larriak Erakunde Autonomoaren Artezkaritza Kontseiluak zehatuko ditu, inguruabarren arabera eta interesdunari entzun ostean. Zehapenak honakoak izango dira:

- a) Eragindako kaltea berriz diruz jarriko du
- b) Erabiltzaile-egoera, edozein eratan, galduko du sei hilabetetik urtebetera bitarteko epean.

2.- Arau-hauste larriak Presidenteak zehatuko ditu, inguruabarren arabera eta interesdunari entzun ostean. Zehapenak honakoak izango dira

- a) Eragindako kaltea berriz diruz jarriko du
- b) Erabiltzaile-egoera, edozein eratan, galduko du hil batetik sei hilera bitarteko epean.

3.- Arau-hauste larriak Presidenteak zehatuko ditu, inguruabarren arabera eta interesdunari entzun ostean. Zehapenak honakoak izango dira

- a) Eragindako kaltea berriz diruz jarriko du
- b) Huts egitea egin duen ekitaldiaren arloan erabiltzaile-egoera galduko du zazpi egun eta hilabete bitarteko epean.

104.artikulua

Zehapena Presidenteak ezarri badu, horrek Artezkaritza Kontseiluari aditzera emango dio egingo den hurrengo batzarrean, txosten baten bidez. Txostenean honako hauek sartu beharko ditu:

- Zein hutsegite egin den eta nork egin duen
- Ezarritako zehapena
- Arau-haustearen alegazioa

VI. KAPITULUA

SERANTES KULTUR ARETOKO LANGILEAK

105. artikulua

SKAk nahikoa langile teknikari izango du bere erabiltzaileei zerbitzu egokia emateko.

Emandako zerbitzu eta ekitaldien zein espazio eta instalazioen funtzionamenduaren arduradun tekniko nagusia zuzendari kudeatzailea da.

106. artikulua

SKAko langileek pertsonaren duintasunari zor zaion errespetua gorde behar izango dute beti areto barruko zein kanpoko lan-jardueretan, eta lan-esparruan ahalegin guztia egingo dute Erakunde Autonomoaren erabiltzaileei ahalik eta zerbitzurik hobereana emateko.

SKAko langileek nahitaezko zuhertasun eta konfidentziasunez jokatu dute pertsonen eremu pribatuarekin loturiko jarduera guztietan.

107. artikulua

SKAko langileen eskubideak indarrean dagoen legedian herri-langileentzat orokorrean zehazten diren berberak dira, eta baita ezarritako hitzarmen kolektiboetan zehazten direnak ere.

Lan baldintzak SKAren beharretara egokituko dira, ezarritako hitzarmen kolektiboetan adierazten dena aintzat hartuz.

Lan jardunaldi, atsedenaldi eta oporraldi erregimena zein ordainsaria eta lanpostuak betetzeko jarraitzen den sistema indarrean dagoen araudia eta ezarritako hitzarmen kolektiboan adierazten den berbera izango da.

AZKEN XEDAPENAK

108. artikulua

Araudi honetan adierazten ez diren kasuak Erakunde Autonomoaren Presidenteak interpretatu eta ebatziko ditu hasiera batean, eta ebazpenon bidez, interpretatzen sor litezkeen zalantzak argituko ditu.

109. artikulua

Araudi hau argitaratu eta doan banatuko zaie eskatzen duten erabiltzaile guztiei.

110. artikulua

Araudi hau Bizkaiko aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.